

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteazkena, 2011ko apirilaren 6a. VIII. urtea. 2.205. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Abiadura Handiko Trenaren lanak baimenik gabe hasi dituzte

Otegitarren lurretan, Tolosako San Esteban auzoan, hondeamakinak sagasti bat txikitu du; aktak maiatzaren 10ean sinatuko dituzte **2-3**



Xabi Otegi zutik utzi duten sagarrondo bakarraren ondoan. A. IMAZ



E. IMAZ

→ Euskal Herriko Itzulia, Tolosaldea eta Leitzaldean.

51. Euskal Herriko Itzulia eskualdetik pasatu da; txirrindulariek Larraitz, Altzo eta Leaburuko gainak igo dituzte. Lekunberrin amaitu den etapan Movistar taldeko Vasili Kiriyenka bielorrusiarra izan da azkarrena. **4**

Leire Olaberria Txirrindularia

«Pistako denboraldi onena izan da niretzat»

Atsedean hartzen ari da ikaztegiatarra maiatzean errepideko denboraldia indarberrituta hasteko; Munduko Txapelketan asko ikasi duela dio **6**



HITZAK harpidedunen artean **Korrikaren lekukoa eramatea** zozketatuko du



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAK kilometro bat erosi du aurten ere Korrikan. Lekukoa eramatea harpidedunen artean zozketatuko dugu.



Tolosan • Apirilak 13 • asteazkena
08:00etan



harpidedunen
TXOKOR hitza

saria eskuratzeko deitu: **943-65 56 95** harpidedun kodea eskura duzula
Jasotako dei guztien artean zozketa egingo dugu. Saridunaren izenak Apirilaren 8ko egunkarian.



Xabi Otegi familiaren lurra atzean duela. Bertako sagarrondo guztiak txikitu ditu hondeamakinak inongo baimenik gabe. A. IMAZ

Xabi Otegiren familiaren lurretan Abiadura Handiko Trenaren lanak hasi dira, baina baimenik gabe. Akten altxamendurako hilabete falta dela kontuan hartuta, salaketa jartzeko asmoa azaldu du olarraindarrak.

Abiadura handiegian

Asier Imaiz Tolosa

Otegitarren baserrira Espainiako Gobernuaren zigilua zuen gutuna iritsi zen joan den astean. Maiatzaren 10ean, berriro ere, gobernu ordezkariak Otegitarren lurretara joatekoak zirela jartzen zuen bertan, bi lur sailen jabetza kentzera.

Hau, ordea, ez zen asteazken hartako albiste bakarra izan. Xabi Otegiren anaiak, Olarraindik Tolosara zihoala, hondeamakin bat ikusi zuen beraien sagastian, trenbidearen beste aldean. Zer gertatzen zen ikustera joan zen, behin Euskal Trenbide Sarekoek eman zioten mapa eskuan

zuela. Bertan lanean ari zirenei mapa erakutsi ondoren, agerikoa onartu behar izan zuten hauek: oker egin zutela.

Baimenik gabe besteren lurra erabat txikitzeak, normalean ondorioak izan ohi ditu. Kasu honean, txikitze horren arrazoia «ur-gentziatzkoa eta interes orokorreko proiektu estrategikoa» bat da, hau da, Euskal Y-a.

Xabi Otegi salaketa jarriko dutela esan du: «Gure lurretara ilegalki sartu dira, aktak altxatu aurretik. Salaketa jartzeko asmoz Udaltzaingora deitu genuen. Hauek txosten bat egingo zutela esan ziguten. Gero udaleko hirigintza sailera joan ginen; bertako teknikoei ikusten zuten oker bat

egon zela, udaletxeko abokatuarekin hitz egingo zutela esan zuten. Hark esango digu zein den eman beharreko hurrengo pausoa».

Bi ikuspegi, eta ezin ulertu

Otegitarrek ehun urte inguru daramatate etxerako sagardoa egiten. San Esteban eta Olarraingo lurrak kentzen dizkietenean, «ia sagastirik gabe» geldituko dira. Xabik dion bezala, «ez gara hortik bizi, baina balio handia dauka guretzat. Guk lurra landu egiten dugu eta ondorioz, sentitu. Beraiztat dena da neurria, dirua eta bulegoko kontua. Bi ikuspegi izugarri desberdin dira, eta ezin gara elkar ulertu».

Egoera «ulergaitz» hau hasi zenetik urteak pasa dira, eta denbora horretan, Otegitarren baserrira ez da Euskal Y-aren inguruko albiste onik iritsi. «AHT hain onuragarria baldin bada denontzat, zergatik dabilta ezkutuana eta gezurretan? Kaltetuak ez luke kaltetu sentitu beharko, alderantziz, hain proiektu interesgarria baliatzen, herriari ekarpen bat egiten ariko litzateke. Baina ongi dakite beraiek hori ez dela horrela», dio Xabik.

Otegitarrek komunikabideen eta Aldizkari Ofizialaren bidez jakin zuten kaltetu zirela, 2009ko

neguan. Euren bi lur sail aurkitzen ziren trenaren bidean. Olarraingoa gainera, etxetik 30 metrotara.

Hasiera haiek ongi gogoratzen ditu Xabi Otegi: «Gure lurren inguruan jende arraroa ikusten hasi ginen, argazkiak ateratzen eta abar. Dirudienez, enpresa as-

«Gure lurretan baimenik gabe sartu dira; sagastia txikitu digute»

Otegitarrek salaketa jartzeko asmoa dute; Hirigintza sailarekin elkartu dira

«Bi ikuspegi erabat desberdin dira, eta ezin gara elkar ulertu»

korentzat lan hauek mauka polita dira, eta edozein momentutan etortzen ziren. Berdin zion gaua, goiza, igandea edo jai eguna izan. Txikizioaren aurka gaudenez, euren gerturatu eta zertan ari ziren galdetzen genien. Euren baimena zutela esaten ziguten, eta guk paperak eskatzen genizkien. Baina beti gezurretan».

Ofizialki jaso zuten lehen idatzia, zundaketa lanen inguruko, ondoren etorri zen. Bertan jartzen zuena ulertzea zaila zenez, inguruko auzoetako kaltetuek elkartzea erabaki zuten. Tolosako udaletxera, ordea, banan-banan deitu zituzten Euskal Tren Sarekoek. Honela kontatzen du Otegi bertan bizitakoa: «Hitz teknikoak erabiliz, gazteleraz... euren menpeko sentitzen ginen. Eta, berez, alderantziz izan beharko zukeen; euren ziren gure lurra nahi zituztenak».

Azkenik, ez zen hitzarmenik egon, taldean ez zituztelako onartu. Ondoren, batzuk baimena eman zuten eta hauen lurretan zundaketa lanak egin ziren. Beste hainbat kasu ez da hori, eta hauen lurretan ez da inongo zundaketarik egin. Xabi Otegi esanetan, «gure lurretan ez dute zundaketarik egin, ez dakite zer dagoen hor azpian».

«Inolako babesik gabe»

Bigarren fasea akten altxamendurena izan da, hau da, lurra kentzeari dagokiona. Diruarekin jolasten dutela salatu du Otegi: «Eusko Jaurlaritzaren eskaintza onartzeko esaten dizute, bestela Gobernuaren Ordezkaritza etorriko dela eta diru gutxiago eskainiko dizutela».



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

2011ko otsailean Tolosako udaletxera deitu zituzten akten altxamendua sinatzera hainbat kalte-tu. Xabi Otegi bertan izan zen eta ez zuen sinatu: «Udalak urte guzti hauetan ez digu inongo laguntzarik eta informaziorik eman. Beti beste aldearen mesedetan ibili izan da. Gure eskubideez informatzeko, Anoetako eta Alegiako udaletara joan behar izan dugu. EHNErekin ere ibili gara eta hauen bidez jakin genuen akta gure lurra sinatzeko esku-genuela».

Bildutako informazioaren arabera, desjabetzea norberak bere lurra sinatzeko, nahiz eta udaletxetik horretarako deitu. Horrez gain, xehetasunen gainean galdetzeko aukera du kalte-tuak bere lurra. Hau da, proiektua nondik nora pasako den, kalteak zein izango diren eta abar. Azkenik, norberak ez baldin badu sinatu nahi, alkatearena da azken hitza, lurjabearen sinadurarik ezeean bereak balio baitu.

Otegiaren lurretara duela hila-

te beginur joan ziren akten altxamendua egitera: «Goizean goiz polizia ugari ikusi genituen auzoan, dena inguratuta zuten. Hasieran ez genekien zer gertatzen zen, eta gero 20 pertsona inguru azaldu ziren gure lurretara.

«Hain proiektu interesgarria balitz, kaltetuak ez luke kaltetu sentitu beharko»

«Aktak sinatzeko ekitaldira alkatea ez zelako azaldu, bertan behera gelditu zen»

Guk, lanak ahalik eta gehien oztopatzeko eta atzeratzeko, dena galdetu genien. Kontua ordea, zera da, denak Tolosako alkatearen zain egon ginela eta hau ez zela azaldu. Ondorioz, ekitaldia bertan behera gelditu zen».

Lehen saiakeran lortu ez zutena, bigarrenengan egiteko asmoa

dute, hau da, maiatzaren 10ean. Behin lanak hasten baldin badira, baserria kezka iturri izango dute Otegitarrek, lur sail batetik gertu aurkitzen baita. Xabiren esanetan, argi indar poste handi horietako bat jarri nahi diete etxetik 15 metrora, egun ibilbidearen erdian aurkitzen baita. «Hau ere etsigarria izan da. Legearen arabera ezin dute etxetik hain gertu horrelakorik jarri. Baina noski, proiektu hau urgentziazkoa eta interes orokorrekoa denez, beste legeen gainetik omen dago. Erabat babesik gabe sentitzen zara».

Babesik gabe sentitzen den arren, Otegi ez dago etsipenean erortzeko prest: «Horrenbeste injustizia eta gezurrek, sarraski honi aurre egiten jarraitzeko indarra ematen dizute».

Azkenik, duela gutxi irakurri duen esaldi batekin amaitu du bere salaketa kontakizuna: «Bote-reak ez dio inori ematen ama lurra mendetan sortutako aberas-tasuna txikitzeko eskubiderik».

Gutuna

Auzo Txikia non dago?

Benta Haunditik aurreraxeago joanda, etxe bat dago, aurrean zelai batekin. Hortxe hasten da Auzo Txikia, Azpeitiara joateko bidegurutzea dagoen lekuan. Azpeitiarako bidea jarraituz, Otsaraingo errotaren pare-parean, beste bidegurutze bat dago. Hemendik bidea jarraituz, 3.400 metro aurrerago arte, Auzo Txikia izaten jarraitzen du, Munita-berri eta Lizardiko bidegurutze arte, hain zuzen; hemendik aurrera, Urkizuko auzoan sartzen gara.

Auzo Txikian, 40 enpresa, pabiloi eta baserri inguru ditu, baina auzo honek ez du izenik, agerikorik behintzat, eta postariak, anbulantziak eta antzekoak galduta ibiltzen dira. Era berean, aipaturiko auzoko hainbat baserriren identifikazio xafiak gaizki jarrita daude: leku adaltua, izengoitia jarrita berezko izena jarri beharrean, Auzo Txikia non hasi eta non bukatzen den markatu beharko luketela uste du.

Gainerako auzoetan gertatzen den moduan, Auzo Txikian ere eskutitzak eta antzekoak etxez etxe banatu beharko lirakete; hemen, ordea, postariak erdi galduta ibiltzen dira, aipatu bezala, auzoko izenik ez delako inon ageri. Ez dela existitzen dituzte.

Gai honen inguruan udal ordezkariekin hitz egiteko aukera izan dudana bakoitzean, nire iritzia azaltzen hasi eta moztu egin izan didate hizketa. Begirune eta arreta falta iruditzen zait jaramonik ez egitea, bai nigana-ko, baita nire auzoaren gainera ere.

Azkenik, baserrietan identifikazio xafiak jartzera etorri den norbanakoak, izenak jarri aurretik informazio pixka bat bildu behar zuela iruditzen zait. Ez dakit Tolosako Udaletik etorri den, edo Gipuzkoako Foru Al-dundiko langilea den, baina hanka sartu du barru-barruraino.

■ **Agustin Iraola.** Tolosa

→ Laburrak

Komertzio eta herritarrei eskerrak eman dizkiete

GIZARTEA ▶ Maria Jose Aiestaranen alabak eta bikoteak eskualdeko komertzio eta herritarrei eskerrak eman nahi izan dizkiete, jaso duten elkartasuna eta babesagatik.

Eider Rodriguezen liburua aztertuko dute bihar

TOLOSA ▶ Bihar, hilaren 7an, Galtzaundi Irakurle Taldeak Eider Rodriguezen *Haragia* liburua aztertuko du. Idazleak berak liburuaren inguruko xehetasunak emango ditu Tolosako kultur etxean, 19:30ean. Taldeko kide eta herritarrak gonbidatu dituzte bertara.

Euskaraenea 2011 berriro ere kalera irtengo da

TOLOSA ▶ Euskaraenea 2011ren barruan hiru ekitaldi egongo dira aste honetan. Hilaren 6an, 20:30ean, Koldo Ametztoy ipuin kontalariak *Biribilketa* izeneko emanaldia eskainiko du kultur etxean. Hurrengo egunean, larunbatean, 11:30ean Anjel Mari Peñagarikano eta Andoni Egaña bertolariak egongo dira Zerkausian. 17:00etatik 18:30era, aldiz, karaokea egongo da leku berean umeentzat.

Yanela Zarumaren erailketa salatuko dute

LEITZA ▶ Leitzaldeko Bilgune Feministak deituta, gaur, hilak 6, elkarretaratzea egingo dute 20:00etan Lopeneko iturrian. Bertan, Yanela Zarumaren erailketa salatuko dute, horrelako gehiago gerta ez dadin.

ESTADO DE ESPAÑA
GOBIERNO DE ESPAÑA
Ministerio de Política Territorial y Asuntos Exteriores
Subdirección General de Registro y Catastro
Dirección General de Registro y Catastro
C/ de Registro, 7041-90 07102
Fecha: 16/05/2011 12:52:00

EXPEDIENTE: 022ADP1008
FECHA: Donostia-San Sebastián a 24 de marzo de 2011


OTORGUE: OTORGUE: OTORGUE, ANTONIO
SAN ESTEBAN AUZA, 57
3040 - TOLOSA.

ASUNTO:
CITACION ACTA PREVIA A LA OCUPACION
EXPEDIENTE DE EXPROPIACION FORZOSA para la URGENTE OCUPACION de las fincas afectadas por las obras del Proyecto LINEA DE ALTA VELOCIDAD VITORIA - ELBANO - SAN SEBASTIAN TRAMO TOLOSA-HERRIALES
TERMINO MUNICIPAL DE TOLOSA

En la fecha y lugar, abajo indicado, se ha previsto llevar a cabo el levantamiento de Actas Previas a la Ocupación relativo a las fincas afectadas, en ese término municipal, por el proyecto referenciado.
Se trata, como conoce, del levantamiento en campo de dichas Actas Previas, dado que la anterior convocatoria no pudo reverse a efecto por haber incumplido el representante municipal su obligación de comparecer.
En consecuencia, y de conformidad con lo previsto en el artículo 52.3 de la Ley de Expropiación Forzosa y concordantes de su Reglamento, se convoca en el día y hora señalados para el levantamiento de las Actas Previas a la Ocupación de las fincas de su propiedad que se indican.
A este Acto podrá comparecer personalmente o representado, en la forma legalmente establecida, aportando su D.N.I. así como la documentación que, de forma fehaciente, acredite la titularidad de la finca, Nota Simple registral, en su defecto Escritura Pública, Certificación Catastral o por cualquier medio, en los términos que se establecen en el artículo 3 de la Ley de Expropiación Forzosa.

LUGAR: Polígono 8 Parcela 108 del municipio de Tolosa
DÍA: martes, 10 de mayo de 2011 HORA: 12:00

Espainiako Gobernutik bidalitako gutuna. Akten altxamendua maiatzaren 10ean egingo dela dio. HITZA



Baimenik gabe AHTren lanak hasi dituzten ingurunearen mapa. HITZA

Iragarki laburrak

GARBIKETA

■ **Auxe Garbitasunak.** Alfonbrak, bulegoak, etxeak, eta antzekoak garbitzeko prest gaudete. Interesadunek inongo konpromisorik gabe dei dezatela telefono zenbakira: 638 94 46 04 (Gurutze).

LANA

■ **Zaintzailea.** Emakumea behar dugu umeak zaindu eta

etxeko lanak egiteko; goizez izango litzateke. Interesatuek deitu 943 67 05 70 telefono zenbakira, arratsaldean.

ALOKAIRUA

■ **Taberna.** Tolosan taberna bat alokatzen dut. Lizenzia badu eta erreformatu beharra dago. Interesatuek, deitu 619 48 86 47 telefono zenbakira.



Valls, Cataldo eta Iglinski Altzoko gaina igoz. ENERITZ MAIZ

Eskualdeko hainbat mendate zeharkatu ditu Euskal Herriko Itzuliko bigarren etapak

Leaburu parean amaitu zen atzoko etapako ihesaldia, tropelak Valls, Cataldo, Iglinski eta Moinard harrapatzean

Itzea Urkizu

51. Euskal Herriko Itzulia eskualdetik pasa zen atzo, bigarren etapapan. Zumarragan hasi eta Lekunberrira arte joan behar izan zuten txirrindulariek, zazpi mendate igo ondoren.

Larraitzeko gaina izan zen lehenengoa. Bigarren mailako mendatea da, eta %5,71ko pendi-za du. Moinard, Garate, Txurruka eta Seeldraeyers txirrindulariak izan ziren Larraitzeko mendatea zeharkatu zuten lehenak, eta handik Alizo aldera abiatu ziren, Abaltzisketa, Amezketeta eta Alegiatik pasa ondoren. Altzoko mendatean, bi kilometroko malda igo behar izan zuten txirrindulariek, eta gaina pasa zuten lehe-

ngoak Geox taldeko Valls, Quickstep-eko Cataldo eta Astana-ko Iglinski izan ziren.

Altzotik, etapako mendaterik gogorrenera abiatu zen itzulia; Azpirozko gaina bi aldiz igo zuten atzo. Altzon lasterketa buruan ziren hiru txirrindulariei, BMC Racing Team taldeko Amael Moinard gehitu zitzaizkien, eta etapako azken kilometroetara iritsi arte, tropelak ezin izan zituen lau txirrindulariak harrapatu. Lekunberri ingurura lehen aldiz iristen, alde eginda zihoazen lau txirrindulariek tropelarekiko alde handitzea lortu zuten, eta zenbait unetan ia sei minutuko alde atera zieten.

Eskualdera hurbiltzen hasi ziren heinean, ordea, tropeleko buru ziren Katusha, Lampre eta Garmin-Cervelo taldeetako txirrindulariek erritmo oso bizia hartu zuten. Bide honetan, Leitzaldea parera iritsi zirenerako, minutu eskaseko alde soilik zegoen tropelaren eta lasterketa buruaren artean. Leitzatik, Berastegi, El-

duain, Berrobi eta Belauntza pasa zituen itzuliak, Leaburu gaina igotzeko, %9,33ko pendi-za du gainak, eta hain zuzen ere Leaburu amaitu zen Euskal Herriko Itzuliko bigarren etapako ihesaldia. Pelotoiak lasterketa burua harrapatu, eta Leaburutik Ibarako bidegurutzera jaisteko aldapa hasieran, Rabobank taldeko Carlos Barredo txirrindulariak ihesaldia jo zuen. Iglinski-k ere aurrera egin zuen honekin bate-

ra, eta Amets Txurruka eskualdunak agerralditxo egin zuen une honetan. Hala ere, tropelak berehala harrapatu zituen hiru gizonak. Ibaratik Txarama aldera jarraitu zuen lasterketak, eta Lizartza izan zen zeharkatu zuten eskualdeko azken herria, ibilbideari dagokionez.

Azpiroren erabaki zen etapa

Betelutik aurrera, 50 km/h abiaduran aritu zen pelotoia, eta Gar-

min-Cervelo taldeko gizonak erritmo oso bizia jarri zuten arren, azken bizpahiru kilometroetan, Movistar taldeko Vasili Kiryienka txirrindulariak ihes egin, eta etapa irabazi zuen, Lekunberriko helmuga zeharkatuz. Horrela beraz, Andreas Kloden jarri da sailkapen nagusiko lehenengo postuan, eta Joaquín Rodríguez bigarrenean. Euskaltel Euskadi taldeko Samuel Sanchez hirugarren postuan da.



Amets Txurruk agerraldia egin zuen Leaburu parean. MAIER UGARTEMENDIA



HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pare** du



Apirilak 9 • Larunbata • 20:00etan • Donostiako Ilunben

LAGUN ARO GBC
Unicaja

saskibaloi partida

sariak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira



sarrerak

HITZAK bi harpidedunentzat **sarrera pare** du

Oinkari
dantza taldearen
Ari du ikuskizuna

Apirilak 15 • Ostirala • 22:30ean
Tolosa Leidorren



Tibet herria gertutik ezagutzeko aukera, Aljibeian

Chungdak Korenek hitzaldia eskainiko du, eta erakusketa eta dokumentala ere izango dira Villabonan

Eneritz Maiz Villabona

Ostiralean, hilak 8, Tibet izango da hizketagai Villabonako Aljibeian, horrela Tibet herriaren inguruko informazio zuzena jasotzeko aukera izango delarik. Villabonako Udalak eta Tibetar Herriarekiko Elkartasun Elkarteak gonbidatuta, generoaren ikuspegitik, bere herriaren egungo egoerari buruz hitz egitera etorriko da Chungdak Koren emakume tibe-

tarra. Hitzaldiaren izena, *Tibet Erbestean: herri baten duintasuna* da, eta hizlaria, Chungdak Koren bera izango da.

Dalai Lamaren ordezkari

Chungdak Koren 1951. urtean Tibetean jaio zen. Eta 1969. urtean, Norvegiara joan zen ikastera. 1988. urtean sortu zen Norwegian Tibet Committee Elkartearen sortzaileetako bat izan zen. 1995. urtetik 2001. urtera bitartean berri, Genevako Gobernu Tibetarren Bulegorako, Dalai Lamaren ordezkari hautatu zuten.

1996. urtean, Norvegiako Voice of Tibet irriarieta sortzaileetako bat izan zen. Eta 2008. urtean, Norvegiako Pens Ossietzky Saria jaso zuen, Tibeteko tibetarren

giza eskubideen alde egindako lanagatik. Egun, International Campaign for Tibeteko batzarkidea, eta erbestean dagoen Tibeteko Parlamenturako hautagaietako bat da, Europar bizi diren tibetarrek ordezkatzeko lituzkeelarik.

Berak emango duen hitzaldiaz gain ordea, argazki erakusketa eta dokumentala ere eskainiko dituzte. *Galdutako aztarnen lurraldea*, argazki erakusketan Juan Ramon Llavori argazkilaria zumaiarrak ateratako lanak egongo dira ikusgai. Indiako Ladakheko eskualdean ateratako argazkiak dira. 16:00etatik 19:00etara ikusi ahal izango dira argazkiak.

Hitzaldiaren ostean, dokumentala eskainiko dute. *Hodeien atzean eguzkia* (*El sol tras las nubes*)



Tibet herriaren egoera gertuagotik ezagutzeko aukera, Aljibeian. HITZA

da. Dokumental hau, tibetarren etengabeko borrokan oinarritzen da. Batzuk, Tibetar herriaren independentzia lortu nahian dabil-tza, eta besteak benetako autonomia bilatzen dute, baina denek, euren giza eskubideen errespetua aldarrikatzen dute. Dokumentala, 2008 eta 2009 urteetan zehar grabatu zen. Eta, zuzendaria, Ritu Sarin eta Tenzing So-

nam (White Crane Films) izan ziren.

Tibeteko egoera latza bizi du aspalditik. Txina Tibetean sartu ostean, 1959. urtean, milaka tibetar erbesteratu ziren Indiara. Egun, 150.000 errefuxiatu inguru dira. Txinako gobernuak, tibetarren giza eskubideak sistematikoki urratzen jarraitzen duela salatu nahi dute ekitaldi hauekin.

Beterriko liburua sariko finalistak Urretabizkaia eta Apalategi izan dira

Irabazlea, hilaren 14a baino lehen aukeratu beharko dute, 111 Akademiako 170 akademia kideek

E. Maiz Zizurkil

2010eko Beterriko Liburua Arantxa Urretabizkaia eta Ur Apalategiaren artean aukeratu dute. Bi hauen liburuak izan dira azken txandara pasa direnak. Apirilaren 14a baino lehen, 111 Akademiako kideek bi obra horietako baten aldeko botoa eman beharko dute.

Bigarren bozketa txandak ez zuen saridunik utzi, ez baitzen jasotako botoen %40a lortu zuen lanik egon, eta horrenbestez, txanda hartan boto gehien jaso zuten bi lanak finalera pasa dira, hau da, Arantxa Urretabizkaiaren *3 Mariak* liburua, eta Ur Apalategiaren *Fikzioaren Izterrak*.

170 akademia kideek bi obra hauen artean aukeratu beharko dute 2010eko Beterriko Liburua sariaren irabazlea nor izango den. Beraz, 111 Akademiak antolatzen duen 2010eko Beterriko Liburua norentzat izango den gero eta gertuago dago.

2010eko Beterriko Liburu izendatuko den obraren izena jakiteko ekitaldia, maiatzaren 5ean, ostegunean Asteasun ospatuko dute.

Pagoetari bira, edo Sodupe eta Zugastietara joateko irteerak aukeran daude

Sagain eta Aizkardi mendi taldeek igandean egingo dute irteera; bihar da izena emateko azken eguna

E. Maiz Asteasu / Villabona

Asteasuko Sagain mendi taldekoak Aiako Pagoetari bira egitera, eta Aizkardi mendi taldekoak, aldiz, Sodupe eta Zugastietara joango dira, iganderako, hilaren 10erako, prestatu dituzten irteeretan.

Asteasuko Sagain mendi taldeak, familiarekin egiteko moduko irteera antolatu du. Asteasutik abitu, eta Pagoetako mendi txokoak zeharkatuko dituzte.

Irteera, plazatik, 09:00etan egingo dute. Autoetan gerturatuko dira Aiara. Behin ibilbidea bukatu eta gero, buelta ere, autoetan egiteko asmoa dute. Eguerdirako itzuliko dira herrira.

Hilabete honetarako prestatu duten ibilbidea erraza da, eta hiru ordu eta erdi inguruan egiteko modukoa izango da.

Izena emateko Asteasuko kiroldegira joan edo deitu beharko da, eta azken eguna hilak 7, osteguna, izango da. Aiara joateko autotik ez eta lekua behar duenak, izena ematerako garaian zehaztu egingo beharko du. Pagoetara egingo duten irteera hau, doan izango



Aizkardiok, mina hauetatik pasako dira. HITZA

da. Sagain mendi taldekoek, herritar guztiak animatu nahi dituzte, irteera honetan parte hartzera.

23 kilometro eta zazpi ordu

Aizkardi mendi taldekoak, lehenik eta behin, Sodupera joango dira, eta bertan emango diote hasiera ibilbideari. Lejartzara (300 metro) igoko dira, eta bertatik, Eretzarako (893 metro) bidea egingo dute.

Jarraian, iparralderantz joko dute, La Cruz (803 metro), Gaste-ran (804 metro) eta Gaineran (822 metro) tontorretatik pasatzeko.

Bide beretik jarraituz, eta minetatik pasatuz, Zugastietara iritsiko dira.

Prestatu duten ibilbidea 23 kilometrotakoa da, eta gutxi gorabehera, zazpi ordu beharko dituzte guztia egiteko.

Izena emateko azken eguna bihar izango da, eta 649 71 71 82 telefono zenbakira 20:00etatik 22:00etara bitartean deituta edo Aizkardi elkartetik bertatik pasata eman daiteke.

Igande goizean, 07:00etan aterako dira Olaederra kiroldegitik. Mendia gustuko duenak, aukera polita du.

→ Laburrak

Bularreko minbizia prebentzio goiztiarra

ANOETA › Katxalin Elkartearen eskutik, bularreko minbizia goiz detektatzeko hitzaldia eta bideoa eskainiko dituzte. Bihar, hilak 7, 18:00etan, Udal areto nagusian izango da. Donostia-koko Onkologikoko Arrate Plazazela medikua etorriko da azalpenak ematera.

Sendabelarren ikastaroan izena emateko aukera

ANOETA › Sendabelarren ikastaroa antolatu du Anoetako Udalak. Maiatzaren 5etik ekainaren 16ra izango da (7 saio). Amaia Baztarrikaren gidaritzapean, ostegunetan elkartuko dira 18:00etatik 20:00etara. Hozpel kaleko udal lokalean izango da, eta kostua, 50 euro da. Materiala aparte izango da. Izen ematea, hilaren 15era bitartean egin beharko da. Udalarekin edo liburutegian.

Korrika kulturalaren baitan bertso afaria

ADUNA › Korrika Kulturalaren baitan, Uztartza aterpetxean bertso afaria egingo dute; Felipe Zelaieta, Manex Mujika, Rikardo Gonzalez eta Arkaitz Oiartzabal bertsolariarekin. Txartelak 25 euro balio du, eta erosteko azken eguna gaurkoa da. Aurretik, 18:00etan, dultzaineroekin kalejira eta herriko kioskoan emanaldi nagusia egingo dituzte, Loatzto musika eskolak antolatuta.

Imanol Garcia Ikaztegieta

Leire Olaberriak (Ikaztegieta, 1977) bukatu du pistako denboraldia. Lehen bi proba garrantzitsuenak irabazi zituen: Europako Txapelketa eta Australian jokatuak Munduko Koparen lehen proba. Munduko Koparen beste bi proba egin zituen (guztira lau izaten dira), Pekinen eta Manchesterren, laugarren eta bosgarren postua lortuz. Azken proba Munduko Txapelketa izan da, eta bertan zazpigarren amaitu du. Orain, errepedeko denboraldia hasi baino lehen, hilabeteko atsedena hartu du ikaztegiatarak.

Zer balantze egiten duzu amaitu berri den pistako denboraldiaz?

Nire bizitzako denboraldirik onena eta politena izan da. Irailean hasi zen denboraldia, Suitzan. Lehenengo aldian omnia Olinpiar Jokoen formatuan egiten genuela. Aurreko urtean zehar ikasten joan naiz proba batetik bestera. Lehenengo zailtasuna Europako Txapelketa izan zen eta irabaztea lortu nuen. Bigarrena Munduko Koparen lehen jardunaldia izan zen, Australian, eta hura irabaztea ere lortu nuen. Konturatu ginen uste baino hobeto joango zitzaigula omnium proba. Gero atsedena hartu nuen eta ez nintzen Calira (Kolonia) joan. Pekinen eta Manchesterren gustura aritu nintzen. Ez nintzen izan Europako Txapelketa eta Australian bezain erregularrak, eta laugarren eta bosgarren amaitu nuen. Azkenean, Munduko Koparen sailkapenean bigarren amaitu dut. Inoiz ez nuen horrelako sailkapenik lortu.

Azken proba, Munduko Txapelketa, nola ikusten zenuen?

Gauzak lortzen nindoala ikusita, eta emaitzek animatuta, urteko erronka Munduko Txapelketa zen. Egia zen guztiak urte guztian zehar lehentasuna izan duela Olinpiar Jokotarako puntuak pilatzen joateak, irabazteko baino. Bi denboralditako emaitzak kontuan hartzen dira horretarako, eta erabaki genuen lehendabiziko denboraldia gogorragoa egitea, puntuak lortzeko, gero bigarren urtea lasaia izateko, eta jokoak hobeto prestatzeko. Munduko Txapelketan oso gustura aurkitu nintzen. Egia esan nire buruarekin oso seguru sentitzen nintzen. Erroka zen, baina nire burua hor aurrean ikusten nuen. Taldekako probetan berriro arazoak izan nituen, eta dominak apur bat urrun joan zitzaizkidan.

Lortutako zazpigarren postua zer iruditzen zaizu?

Zazpigarren postuak niretzat meritua handia du, baina ez nintzen horren bila joan. Niretzat oso denboraldi garrantzitsua izan da, lehendabiziko aldiz sinistu baitut Munduko Txapelketa irabazteko aukera nuela, edo behintzat dominetan ziur egon nintekeela. Egon naizen omnium bakoitzak hurrengo urtera begira informa-



HITZA

Leire Olaberria › Txirrindularia

Pistako Munduko Txapelketa bukatu eta gero, atsedena hartzen ari da Leire Olaberria. Maiatzean errepedeko denboraldia hasiko du. Egin duen pistako denboraldiarekin gustura gelditu da ikaztegiatarra.

«Lehenengo aldiz sinistu dut Munduko Txapelketa irabazteko aukera nuela»

zio asko eman dit, asko ikasi dut eta oraindik ikasteko dudala uste dut. Guztiz harrapatuta nago omnium probarekin. Oso proba berezia da, oso zaila da, eta indartsu izateak ez dizu ziurtatzen aurrekoekin egotea. Hainbeste faktore jokoan daudenean, txirrindulariarentzat oso motibagarria da, ez dago aspertzeko unerik. Nahiz eta jakin indartsu zaudela, horrek ez dizu ezer ziurtatzen.

Nola prestatu daitezke taldekako probak?

Kontu taktikoak dira. Manchesterreko Munduko Kopako probaren ondoren, oso garbi ikusi zen Sarah Hammer zela areririk indartsuena. Puntuaketako probetan, bere zain egotea izan zen taktika. Manchesterren bere erasoak nire esprinten ondoren etortzen ziren. Eta Munduko Kopa batean esprint bat irabazteko, dituzun indar guztiak hor utzi behar dituzu, eta horren ostean bere erasoak oso bortitzak izaten ziren. Orduan, taktikoki erabat

aldatzea erabaki genuen. Bagenekien apustua arriskutsua zela, baina nik baditut kolore guztiak dominak, eta apustu potoloa egin genuen: Hammerren zain gelditu nintzen, eta gauzak ez ziren nahi bezala joan.

Hartutako erabakiaz damutzen al zara?

Ez naiz damutzen. Arriskutsua zela banekien, eta aurretik onartua nuen ondo ateratzea. Ezin naiz horretaz damutu. Proba guztiak ikusita, dudarik ez dago erlojuaren aurkako probak ondo menperatzen ditudala. Besteak ez dira batere errazak menperatzeko. Batzuetan ondo ateratzen dira eta beste batzuetan ez. Datoren urtera begira hor dago lan egiteko eta hobetzeko bidea. Oraindik gauzak hobetzeko daudela ikustea ona da niretzako. Eta garbi dut gauza horiek menperatzen ditudanean, berriro izango naizela aurrekoekin.

Erorketa bat izan zenuen probetako batean, lehenengo egunean. Horrek

fisikoki ez ezik, buruan ere eragina izango zuen.

Gorputzean, noski, erortzen zaren bakoitzean ondorioak izaten dira. Egurrezko belodromoa da eta erortzen zarenean egur-printza asko askatzen ditu. Horrela izan zen eta onartzen dut. Om-

«Bizitzako pistako denboraldi onena eta politena izan da niretzat»

«Omnia berezia da, indartsu izateak ez dizu ziurtatzen aurrekoekin egotea»

nium batek hori dauka: batzuetan dena ondo joaten da eta besteetan okertzen da. Nahiz eta erorketa izan, hurrengo egunean ezer gertatu ez balitz bezala jokatzen saiatu nintzen. Urteko lan guztia hor zentratuta zegoen, eta ez

nuen nahi nire burua helburuetatik aldentzea. Eta pozik nago, bai jazarrenean, bai bostehun metroetan, eta bai itzulikoan, nire denbora pertsonalak direlako. Nahiz eta emaitzari begiratuta ez nauen asko betetzen, Munduko Txapelketa honek, batez ere hotzean ikusita, hurrengo urtera begira oso datu positiboak eman dizkit. Zorte apur bat ere beti behar izaten da. Oso proba polita daukat eta Londresera begira beste urtebete gelditzen zait lana egiteko.

Beste txirrindularik nola ikusi zenuen?

Niretzat ezustea Hammer izan zen. Bai Manchesterren eta bai Calin eman zuen erakustaldia eta gero, uste nuen maila hobetua emango zuela. Tara Whitten oso aurkari borrokalaria izaten da. Bera izan zen agian Hammer eta nire arteko borroka horretatik irabazle atera zena. Hammer eta ni bata bestearekin itsutu ginen, eta berak bere lanean jarraitu zuen. Agian Omnium proba baterako jarrera hori da egokiena. Hurrengo urtera begira horiek dira areririk gogorrenak. Espero dugu taldekako probetan asma-tzea, eta ea beraikin borrokan jarraitzea dudan. Ikusita erlojuaren kontra nola moldatu naizen, eurekin egon behar naiz borrokan.

Olinpiar Jokoei begira, nola zaude sailkapenean?

Munduko Txapelketaren aurretik bigarren postuan nengoen eta orain hirugarrenean geratzen naiz. Munduko hemezortzi onenak sailkatzen dira, eta horrez gain, European bederatzia lehene-tan egon behar zara. Europako arteen lehendabizitza nago. Beraz, ez dago arazorik. Hurrengo denboraldia apur bat lasaia izateko itxura dauka. Saiatuko gara gehiegi ez kargatzen. Hurrengo denboraldian izango ditudan helburuak hobeto prestatzeko aukera izango dut.

Pistako denboraldia amaitu da. Noiz hasten zara berriro entrenatzen pistarako?

Denbora luzez egongo naiz belodromora joan gabe. Irailera arte edo urrira arte ez dago txapelketarik. Niretzat denbora gehiegi da lehiatzen ibili gabe egoteko. Orain atsedean hartzen ari naiz eta maiatzean hasiko naiz errepedeko lanarekin, Debarrena taldean. Ez dut erabaki zer egutegi egingo dudan. Erlojuaren aurkako prestatzeko asmoa dut, eta ikusiko dugu zer maila ematen dudan. Errepidea beste modu batera hartzen dut, baina horrek ez du esan nahi egunen batean aukera polit bat badut, ez naizenik saiatuko irabazten.

Hilabete honetan bizikleta ukitzen duzu?

Ez dakit egoten bizikleta ukitu gabe. Entrenamendu finkorik gabe ateratzen naiz. Gero hamar-hamabost egun inguru geldirik egongo naiz.

Korrikaren inguruko dokumentalak ikusgai

Ibarran eta Amezketan euskalgintzarekin zerikusia duten dokumentalak eskainiko dituzte

M. U.

Korrika 17 gerturaten ari da, eta honen harira hainbat ekitaldi antolatzen ari dira Tolosaldean. Ibarrran eta Amezketan, esate baterako, bi dokumental eskainiko dituzte bihar.

Korrikak eta AEK-k Euskaltzaindia omendu nahi izan dute. Omenaldi horrek dokumental forma hartu du, eta beratu ikusi

ahal izango da bihar, Ibarrrako kultur etxean, 19:30ean. Korrika 17ren dokumentalak *Zenbait gazte ausartizena* du. Fikziozko egoera batetik abiatuta, 30 bat testigantzaren laguntzaz, Euskaltzaindiaren, euskara batuaren eta euskalduntze-alfabetatzearen historia kontatuko dute. Aurritik, 19:00etan, batzordeak bilera motz bat egingo du azken xehetasunak azaltzeko.

Amezketan, Euskal Herrian Euskaraz *Izan, egin, eragin* dokumentala ikusi ahal izango da bihar, 19:00etan, kultur etxean. Ondoren, Martin Amondarainek euskalgintzaren inguruan izan dituen bizipenak kontatuko ditu solasaldi batean.



Iker Martinez eta Xabi Fernandez Bartzelonan, garaikurra jasotzen. HITZA

Irudia ◊ Leaburu-Txarama



LARRESOROKOEN BISITA

Pasa den igandean Lapurdiko Larresoro herriko lagunak bisita jaso zuten Leaburu-Txaramakoek. Guztira 60 lagun inguru elkartu ziren. Toka txapelketa egin zuten, lehenik. Irabazleak Larresoroko Pantsiz eta Katu izan ziren. Ondoren, sagardotegira joan ziren bazkaltzera. Bertan musika eta kantuen bidez alaitu zuten giroa. HITZA

Iritsi da Mapfre ontzia

Fernandez eta Martinezen ontzia izan da geldialdirik egin gabe eta laguntzarik jaso gabe iritsi den lehena

Maier Ugartemendia Ibarra

Atzoko 11:17an iritsi ziren Xabi Fernandez eta Iker Martinez Bartzelonara. Horretarako 94 egun, 21 ordu, 17 minutu eta 35 segundo behar izan dituzte. Astelehenean lehen postuan iritsi ziren Virbac Paprec ontziko Jean Pierre Dick eta Loick Peyron, frantsesak. Beraz, helmugara iristen bigarrenak izan dira Mapfre ontziko euskaldunak.

Astelehenean Martinezek dei bat egin zuten taldekideei janaririk eta gasoliorik gabe zeudela esateko. Horregatik, ezinbestekoa zen ahalik eta azkarren amaitzea munduko itzulia. Helmugan ikus zitekeen zein gogorra izan den txapelketa Fernandez eta Martinezentzat. Askoz meharrago zeudela nabaria zen, baina, hala ere, ez zuten irribarrerik galdu.

Pasa den abenduaren 31n hamalau ontzi atera ziren Bartzelonatik; horietatik lauk txapelketa utzi behar izan dute. Mapfre ontzia izan da geldialdirik egin gabe eta laguntzarik jaso gabe iritsi den lehen ontzia. Fernandezek TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA-ri elkarriketa batean adierazi zion, munduari buelta gelditu gabe

ematea zela beraien helburua. Helburua beteta iritsi dira, beraz, gipuzkoarrak.

Lur hartu ondoren, senideak eta lagunak agurtu zituzten lehenik. Eta jarraian prentsaurreko bat eman zuten.

Pazifikoko kopa

Xabi Fernandez eta Iker Martinezek, Barcelona Word Race-n bigarren postua lortzeaz gain, beste garaikur bat ere eskuratu dute: Pazifikoko Kopa. Sari hau eskuratu dute Zeelanda Berriko, Cook itsasartetik, Txileko Hornos lurmuturrera azkarren joan zen ontzia izateagatik. Tarte horretan guztira 4.500 milia (7.242 kilometro) inguru egin zituzten, 12 egun, 8 ordu eta 20 minututan.

◉ Hilberriak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



MARI KRUZ ETXEBERRIA USANDIZAGA

(Jose Ramon Alberdiren alarguna)

- Goian bego -

Bilobak: Iñaki eta Ane, Gorka eta Larraitz, Asier eta Josune, Josune eta Joxe Mari, Jon eta Maria, Eba, Ainoa eta Aritz, Aritz, Eneritz eta Xabi, Eñaut, Uxue, Eneko eta Leire, Maddi eta Ibai, Naiara eta Ander, Alain, Aitor, Sara eta Nuria.
Bilobak: Elene, Elaia, Ane, Maria, Iñigo eta Xabier.

Idiazabal, 2011ko apirilaren 6an



MANUEL MENDEZ GONZALEZ

(CANO)



Apirilaren 1ean hil zen Palazuelon (Badajoz), 71 urte zituela, elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondoren.



Alegian, 2011ko apirilaren 6ean

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakartzak bere neumiko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazena da galduta duzuna.
baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Haur eta gazteentzako jolaslekua egin dute frontoiaren atzealdean

Kirol anitzeko pista Lurkoik egin du, eta bertan, saskibaloian edo futboleant aritzeaz gain, eskalatzeko aukera dago

Erredakzioa Hernialde

Hernialden, pilotalekuaren atzealdean, kirola egiteko gunea bukatu berri dute.

Kirol anitzeko pista haur parkea luzatuz osatu dute, eta bertan, batetik, futboleant eta saskibaloian jolasteko aukera dago, eta bestetik, rokodromo txiki bat egin dute. Hala ere, bertan gazte txoek kirol ugari egin ahal izango dituzte aipatutakoekin gain. Gunea guztiz hornituta dago, nahiz eta argiztapena falta den oraindik.

106.522 euroko aurrekontua
Lanak Lurkoi enpresak egin ditu, eta 106.522,61 euroko aurrekontua izan dute. Hernialdeko Udalak erdia ordaindu du eta gainontzekoa Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Kirol Sailak.



Guneak rokodromo txiki bat ere badu. E. MAIZ

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** Ugarte, L. L. Euskal Herria kalea, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.
- **Lekunberri.** Azpiroz M.A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Peru Oreja Zubelzu (Alegia).

Gaur 6 urte!
Muxu handi bat aitona-amonaren eta familia guztiaren partetik!

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

●● **agurrak**



MARKEL OLANO

BATU GAITEZEN

GIPIZKOAK AURRERA EGITEKO

EAJ-PNV-ko Hautagaitzaren Aurkezpena

Apirilak, 6 Asteazkena, arratsaldeko 18:30etan
Villabonako Batzokian

Agenda

DEIALDIK

- **Tolosa.** Euskaraenearen barruan, *Ahokotasuna Irakaskuntzan* hitzaldia, Mintzolako Maitane Aiertza eta Inaxio Usaralderen eskutik. Gaur, 19:30ean kultur etxean.
- **Tolosa.** Amalur jardunaldien barruan, *Extralurtarren Lurraldea* dokumentala gaur, 19:30ean Topic-en. Hitzaldia euskaraz izango da.
- **Berastegi.** Gaur 21:00etatik aurrera aurtengo Salontzo jaiak prestatzeko bilera egingo dute udaltxean (Erretorearen etxe-ko bulegoan). «Denon ideiak eta burutazioak kontutan hartu nahi ditugu ahalik eta herritar gehienengatik festa antolatu ahal izateko. Beraz, azaldu bilerara eta eman zure iritzia», azaldu dute arduradunek.
- **Amasa-Villabona.** Aizkardik mendi ibilaldia antolatu du iganderako, hilak 10. Sodupe-Zugastia ibilaldia egingo dute. Izena emateko 649 71 71 82 zenbakira deitu behar da, 20:00etatik 22:00etara, edo Aizkardiren egoitzara joan. Azken eguna osteguna da.
- **Asteasu.** Pagoetari bira emateko ibilaldia antolatu du iganderako, hilak 10, Sagainek. Izena

kiroldegian eman behar da eta azken eguna osteguna da.

- **Tolosa.** Oargi mendi elkartek irteera antolatu du datorren as- tebururako. Aragoiko Pirinioetako bi mendate igoko dituzte: Cotiella (2.911 m) eta Peña Montañesa (2.191 m). Ostiralean, apirilak 8, arratsaldean irten- go dira Tolosatik, eta gauak Saravilloko aterpetxe batean emango dituzte. Izena emateko info@oargi.orgedo oargimendia@gmail.com helbidean eman daiteke, edo 688 69 86 42 telefono zenbakira deituta. Izena emate- rakoan partaide bakoitzak 20 euro sartu beharko ditu Euskadi- ko Kutzako 3035 002811 0281141038 kontuan.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** *Boga Berria* emakume arraunlari buruzko argazki- kiak Aranburu jauregian apirila- ren 13a bitarte.
- **Tolosa.** *Colorin eta bere txo- txongiloak* Topic-en ekaina bi- tartete. Aste egunetan 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik, eta asteburuetan, aldiz, 12:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara.

